


LAN MERKATUA


Balantze positiboa 2018ko lan merkatuan

Enplegu tasa guztira 16 urteko edo gehiagokoen aldean




2018ko laugarren hiruhilekoaren BJA inkesta argitaratuta, lan merkatuaren aldagai nagusietako batzuen urteko balantzea egin daiteke jadanik. Izan ere, enplegu tasa berriro igo zen zazpi hamarrenetan eta %50,7an kokatu, azken zortzi urteko tasarik gorena delarik. Halere, oraindik urrun dago 2008an eskuratu zen maximo hartatik (%53,2). Inkesta horrek zenbatestez duenez, 15.000 lagun inguruk lana aurkitu zuten iaz. Generoaren arabera, enplegu tasaren hobekuntza biziagoa izan zen gizonen artean, %55,6ra iritsita, hots, 2017ko batez bestekoa baino puntu bat gehiago. Emakumeen enplegu tasa, berriz, %46,2an kokatu zen, aurreko urtekoa baino puntu erdi bat gorago.


Enplegu tasa. Emakumeak 16 urteko edo gehiagokoen aldean



Enplegu tasa. Gizonak 16 urteko edo gehiagokoen aldean




Langabezia tasa guztira




Interesa pizten duen beste aldagai bat langabezia tasa da, urteko batez bestekoa %10,3an kokatu baitzen, hots, aurreko urtekoa baino puntu bat beherago eta 2014ko maximoetik (%16,1) ia sei puntu beherago. Hala ere, oraindik asko falta da 2006-2008 epealdian lortu zen enplegu betera itzultzeko. Jaitsiera esanguratsua izan zen bai emakumeen artean bai gizonen artean, bereziki azken horien artean, beraien langabezia tasa jadanik %10,0aren azpian dagoelarik. Batez besteko langabezia tasa bikoizten du gazteenak, aurreko urtearen aldean ia aldatu ez zena. Dena dela, gazte gutxik bilatzen du lanpostu bat, gehien-gehienak ikasten daudelako.

Gazteen langabezia tasa



Emakumeen langabezia tasa



Gizonen langabezia tasa

